

BATERATZEN programa

2021

Jendeak Kooperatiben premia estrategikoen alde jokatzeko laguntzeko



EUSKOOP

KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Confederación de Cooperativas de Euskadi

Reyes de Navarra, 51 • 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 122 050 • konfekoop@konfekoop.coop

www.konfekoop.coop

1. SARRERA

Egungo merkatuetan gero eta lehiakortasun handiagoa dagoenez, erakundearen iraunkortasuna bermatzeko giltzarrietako bat jendearen inplikazio, konpromiso eta proaktibitatea hobetzea da, erakunde-proiektu komun baten onerako.

”Bateratzen 2021” ekinbidea 2010. urtean jarri zen martxan, erakundeei pertsonen ahalmena “askatzen” laguntzeko, horrek erakundearen erronken alde joka dezan.

Orain arte, ekinbide honek (industria, zerbitzu, laguntza eta hezkuntza arloetako) 485 erakunderen 65.000 inkesten datuak metatu ditu gutxi gorabehera. Metaturiko datu hauek aukera ematen diote edozein erakunderi ezagutzeko:

- zenbateraino sustatzen dituen erakundeak estrategiaren aldeko jokabide edo portaerak.
- erakundearekin konprometituriko edo/eta “lotura gabeko” pertsonen %a, baita horien emozio- edo energia-egoera ere.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

- 1) Erakundeari zera jakiten laguntzea, ea zenbateraino dauden pertsonak konprometituta, proiektu komun baten mesedetan jokabide proaktiboak gauzatu (bere sektorearen erreferentzia-datuei, Datu Basean metaturikoei, dagokienez).
- 2) Orain arte Bateratzen-en egindako garapenak (www.bateratzen.net ikusi) erakundeari transferitzea, erakundeak:
 - (i) etorkizunean diagnostikoak era autonomoan egiteko,
 - (ii) Bateratzen ekinbidean garatzen ari den ezagutzaz baliatzeko, metaturiko Datu Basearen azterketaren emaitza gisa.

3. METODOLOGIA / FASEAK

1. fasea: Erakundearen diagnostikoa egitea (www.bateratzen.net webgunean eskura dauden tresnen laguntzaz).

- Helburua: strategiaren aldeko jokabideak erakundeak zenbateraino sustatzen dituen, pertsonen konpromiso maila, eta beraien emozio- eta energia-egoera (galdeketa baten bidez) ezagutzea.

2. fasea: www.bateratzen.net erabiltzen ikastea, erakundeak ahal izan dezan...

- 1. helburua: garaturiko ezagutza enpirikoaz baliatu (metaturiko Datu Basearen azterketaren emaitza gisa) eta hobetzeko egin litezkeen ekintzak identifikatzea.
- 2. helburua: etorkizunean diagnostikoak era autonomoan egiteko tresna erabiltzen ikastea.



4. KOOPERATIBEN ALDETIK BEHARREZKO ARDURALDIAK ETA BALIABIDEAK

Zuzendaritzaren aldetik:

- 6 ordu 1. faserako.
- 3 ordu 2. faserako.


Pertsonen aldetik: 15/20 minutu informazio-bilketa egiteko (inkestan bidez)



5. ENPRESARENTZAKO EMAITZAK

Prozesua amaitzean, emaitzak honako hauek izango dira:

- 1) Erakundearen egungo egoera ezagutzea pertsonen dagokienez (estrategiarekiko lerrokatze maila, konpromiso-maila, eta beraien emozio- eta energia-egoera), sektorearen erreferentziekin alderatuz (Datu Basean metatuak). Ikus adibidea grafikoa.
- 2) Online plataforma bat (www.bateratzen.net) erakundeak: (i) metaturiko Datu Basetik sortzen ari den ezagutzara sarbide zuzena izan dezan, ekintza-plan sendoagoak zehazteko helburuaz; eta (ii) etorkizunean diagnostikoak era autonomoan egin ahal izan ditzan.





6. PROGRAMAREN KOSTUA

Programa DOAKOA izango da KONFEKOOPEko bazkide diren Kooperatibentzat.



7. PROGRAMAREN ZUZENDARITZA

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko (MONDRAGON UNIBERTSITATEKO) lantalde tekniko batek gauzatuko du programa eta Unai Elorzak koordinatuko du.



8. PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK

Martxoaren 23a baino lehen.



9. GAUZATZEKO EPEA

Ahal dela, programa apirilaren 12 eta azaroaren 12 artean gauzatuko da. Data zehatzak Kooperatiba bakoitzarekin zehaztuko dira.